Arabako SEADen Lagunen Elkartea
Asociación de Amigos y Amigas de la RASD de Álava

Informazio-Buletina

APIRILA 2026

Buletin honetan Mendebaldeko Saharari buruzko azken berriak eta Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren Aldarrikapenaren 50. urteurrena dela-eta bereziki markatutako urteko lehen hiruhilekoko elkartearen jarduerak aurkituko dituzu.



1976-2026 50 urte años

Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD)

ABERRI bat eraikitzen
Construyendo una NACIÓN

República Árabe Saharaui Democrática (RASD)

Buletin honetan, ondoko gaiei buruzko informazioa aurkituko duzu:

- Gatazkaren egoera, elkarrizketak
- SEAD-en aldarrikapenaren 50. Urteurrenaren ospakizunaren inguruko jardueren programa
- Ipuin kontalariak ikastetxeetan
- Bidaiak Tindoufeko Saharar Errefuxiatuen Kanpamentuetara
- 2026ko karabana
- Bidaia Genevara, Giza Eskubideen Kontseilura

Antonio de Sucre, 1 - 01003 Vitoria-Gasteiz
www.saharaelkartea.org
administrazioa@saharaelkartea.org

Gatazkaren egoera, elkarrizketak

Zazpi urtez goi mailako bilerarik izan gabe, azken hilabeteetan, Maroko eta Polisarioren atzerri ministroak, gutxienez hiru aldiz, bildu dira Mendebaldeko Sahararen deskolonizazio arazoaz hitz egiteko.

Bakarrik parte hartzaileek dakite zehatz-mehatz nola joan diren elkarrizketak oso isilpean gorde baitituzte haien mekanismo eta edukiak. Topaketen izaera ere espekulazio mailan mantentzen da. Batzuentzat azken konponketarako negoziazioak direnak besteentzat elkarrizketa xumeak besterik ez dira izan. Iturri fidagarri batzuk mahai borobilaren formula ziurtatzen duten bitartean - Aljeria eta Mauritania maila berean eserita Polisario eta Marokorekin- beste analista batzuek parez pareko elkarrizketarik ez dela egon eta zeharkakoak izan direla ziurtatzen dute. Izan daiteke ere hiruretan formula desberdina erabili izana. Gauza bat garbi dago: kasu honetan ez da NBEk sustatutako ekimena izan, AEBrena baizik. Eta Estatu Batuek munduan duten botere hegemonia erabili badute bi parteak elkartzeko, behintzat ez da indar militarraren bitartez izan, Venezuela, Kuba edo Iranen bezala. Diplomaziaren garaipena da, batzuek aldarrikatzen duten bezala edo Trumpen kontseilari baten tema, jefearen aurrean puntuak irabazteko beste batzuek maltzurkeriaz botatzen duten moduan?

Edozein kasutan, elkarrizketek jatorrizko kontraesanen itsas nahasia surfeatu beharko dute hondartzara iritsi baino lehen. Hasteko, Trumpen administrazioak eta, neurri batean ere Marokok, erakutsi duten presa handia ez du ematen biderik onena dela arazo luze eta alde askotarikoa konpontzeko (dagoeneko hasieran Trumpek aipatu zuen 60 eguneko epea oso gainditu da). Bestetik, aktore ezberdinen asmoek ez dirudite batzeko errazak. AEBk Mendebaldeko Saharako auzia konpondu nahi du Marokoren eta Aljeriaren arteko bake giroa sustatzea aurre baldintza baita Afrikako iparraldean dituen interes geoestratejikoak eta ekonomikoak finkatzeko. Nazio Batuek, bigarren mailan badaude ere, interes handia dute autodeterminazio printzipioaren itxura eman dezakeen konponketa bat bilatzeko bere papera guztiz ezabatuta ez agertzeko. Polisariok bere herriaren etorkizunaz gain, bere autoritas eta urteetako borroka jartzen du jokoan eta Marokok, era berean, Mendebalde globalari eskualdeko aliatu fidagarriena dela saldu nahi dion errelatoa eta negozioen promesak kolokan jarriko lituzke benetako autonomiaren formula bat ez badu bermatzen azken konponketarako, baina, era berean, benetakoa izanez gero, Majzenen erregimena barne arazo larrian kokatuko litzateke.

Oraingoz esan dezakeguna da hedabideek haizatu dituzten bi parteen proposamenen inguruko balizko eztabaidak espekulazio edo propagandatzat hartu behar ditugula. Inork ez du ikusi –Erresuma Batuko atzerri ministroak berak dio- Marokoar prentsak zabaldutako sasi autonomiaren proposamen berria (38 orrikoa) eta inork gutxik komentatu du ere Polisarioren proposamen publikoa, nahiz eta, teorian, elkarrizketa hauetan aukera guztiak aztertu beharko liratekeen, NBEren azken ebazpenari kasu egiten bazaio.

Baina, agian, ez dugu luzeegi itxaron behar topaketek izan duten emaitzen ideia bat izateko. Izan ere, aipatutako ebazpenak - elkarrizketak agindu zuen berak – apirilean, “elkarrizketen emaitzen arabera” MINURSOren jarraipenari buruzko “azterketa estrategikoa” ere eskatzen baitio Idazkari Nagusiari... Testuinguru horretan, Brahim Gali SEADeko presidenteak aldaketa sakonak egin ditu ELPS armadari, lehendakaritzari eta Gobernuari dagozkionak. Askorentzat, birmoldaketa arrunta baino gehiago, kanpo edo eta barnerako mezutzat har daiteke. Hala, AEBk gidatutako elkarrizketez gain, borroka armatuarekin jarraitzeko mezua helarazi nahiko zion nazioarteko komunitateari eta Marokori bereziki eta, bide batez, orain arteko linearekin jarraitzeko borondatea adieraziko lieke datorren kongresuan aldaketak eskatzen dituztenei.

SEAD-en aldarrikapenaren 50. Urteurrenaren ospakizunaren inguruko jardueren programa

2026ko otsailaren 27an 50 urte bete dira Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zenetik. Elkartean joan den ikasturtean urteurrena ospatzeko ekitaldien egitaraua prestatzen hasi ginen eta emaitzak merezi izan duela uste dugu. Hainbat jarduera egin ditugu askotariko publikoentzat, eta, gainera, komunikabideetan eta era guztietako erakundeetan (politikoak, sindikalak, GGKEak...) eragina izatea lortu dugu.



Jarraian, antolatutako jarduera bakoitzaren aipamen txiki bat aurkezten dizuegu.

Arte-tailerra

Tailerra otsailaren 17an egin zen, Kiribil aretoan, eta hamahiru pertsonak hartu zuten parte. Linograbatuaren teknikaren bidez, saharar pertsona ospetsuen eta haien kulturako elementuen irudiak ehunean islatu zituzten. Lana egin bitartean aukera izan zen saharar herriaren historiaren eta bizitzen ari den errealitate politikoaren hainbat alderdiz hitz egiteko.

Saharako sukaldaritza-tailerra

16 lagunentzako edukiera osoa beteta, tailerra otsailaren 19an egin zen Hegoalde Gizarte Etxeko sukalde gelan. Janaria prestatu bitartean, gatazkaren egungo egoeraz, eta kolonialismoak eta babeslekuak nolako eragina eta nolako ondorioak dituzten sahararren bizitzaren arlo guztietan, baita sukaldaritzan eta elikaduran hitz egiteko aukera izan zen oso giro hurbil eta lagunkoian.













Mozioa Gasteizko Udalean

SEADen eta Mendebaldeko Saharako Herriaren autodeterminazio eskubidearen aldeko mozioa EAEko udal guztietan aurkeztu zen. Gasteizko Udalaren kasuan, gure elkarteak kudeatu zuen, eta otsailaren 20ko osoko bilkuraren herri-txandan aurkeztu zen. Testu orokorraz gain, bi konpromiso espezifiko zituen Gasteizko Udalarentzat: hiriko kale bat La Güeraren hiri senidetuari eskaintzea, eta zuhaitz bat birlandatzea, La Güerarekin senidetzea ospatzeko (40 urte beteko dira datorren urtean). Mozioa aldeko 21 botorekin (EH Bildu, EAJ-PNV, PP eta Elkarrekin) eta 6 abstentziorekin (PSE-EE) onartu zen. Lotura moziora.

Muha eta amona Lala "liburuaren aurkezpena

Otsailaren 21ean, 12:30etan, gehien batean familiez osatutako 60 bat laguneko taldearen aurrean aurkeztu genuen liburua Izaskun Arrue Kulturgunean eta bertan izan ziren Kristina Berasain idazlea eta Eñaut Aiartzaguena ilustratzailea. Liburuan kontatzen den istorioaren narrazioa Elisa Ruedak egin zuen Pako Eizagirrek lagunduta.

Haurrentzako jarduerak

Hilaren 21ean bertan, Iparralde Gizarte Etxean, 17:00etatik 19:00etara, haurrentzako jolasgune bat izan genuen, adin ezberdinetako haurrak hartzeko prestatua, eta 80 pertsona hurbildu zitzaizkigun (helduak eta haurrak).


Atxikimendu-adierazpena

Saharako Ordezkaritzarekin dokumentu bat adostu ondoren, Mendebaldeko Sahararekiko hainbat erakunde solidarioren esku jarri genuen eta horiek onartu ondoren, erakunde politiko, sindikal eta askotarikoen artean zabaldu genuen. Adierazpenak babes handia jaso zuen eta ia 50 erakundek bat egin zuten. Sahararekiko elkartasunaren esparruan, 13 erakundek babestu zuten, eta erakunde politiko eta sindikal askok. Otsailaren 24an, prentsaurrekoan, manifestua eta atxikitako erakundeak argitaratu ziren.

Harrera instituzionala

Hilaren 27an, 50. urteurrenaren egunean, Eusko Legebiltzarrak harrera instituzionala egin zion gure autonomia erkidegoan Saharar herriak duen ordezkaritzari. Legebiltzarreko lehendakariak berak eta talde politikoetako ordezkariek parte hartu zuten ekitaldian, Saharako Ordezkaritzarekin batera. Hainbat elkarte eta erakundetako ordezkariek ere parte hartu zuten.












1976-2026
50 urte años
Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD)
ABERRI bat eraikitzen
Construyendo una NACIÓN
República Árabe Saharaui Democrática (RASD)










1976-2026
50 urte años
Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD)
ABERRI bat eraikitzen
Construyendo una NACIÓN
República Árabe Saharaui Democrática (RASD)

SEADekiko lankidetzari buruzko belaunaldien arteko mahai-ingurua

Lau pertsona: bi gazte eta bi adineko, bi saharar, bi gasteiztar, bi emakume, bi gizon, Andrea Ruizek moderatuak, SEADekiko lankidetzaren iraganaz, orainaz eta etorkizunaz eztabaidatu zuten, parte-hartzaile bakoitzaren esperientziatik eta itxaropenetatik abiatuta. Topaketa otsailaren 26an izan zen, Europa Biltzar Jauregian, eta ikuspuntuen eta planteatutako gaien aniztasunaren ondorioz saioa bizia izan zen oso. 40 bat lagun bertaratu ziren.

Aldarrikapen-manifestazioa, ospakizuna dela eta

Hilaren 27an bertan, arratsaldean, 300 pertsona baino gehiagok manifestazioa egin genuen Gasteizko kaleetan zehar segizio ikusgarri eta zaratatsu batean -batukadaren partaidetzarekin-, mundu guztiaren arreta erakarri zuena. Plaza Barriko amaierak ere bertan bildutako pertsona guztientzako arreta gune bezala balio izan zuen. Jarraian, saharar rak, gasteiztarrak eta lagun guztiok Iftara- Ramadanaren baraualdiaren haustea- ospatu genuen Los Arquillosen.

SAHARARI KANTARI musika ikuskizuna

Ekainaren 28an, Saharari Kantari ikuskizuna egin zen Bilboko Euskalduna Jauregian. Saharar musika beste musika-genero batzuekin uztartzen duen ekitaldia da, eta Saharako eta bertako artistak biltzen ditu kultura-trukerako gune batean. Ekitaldian abesti tradizionalak eta konposizio garaikideak interpretatu ziren, saharar herriaren erresistentzian eta nortasunean inspiratuak. Emaitza oso ikuskizun indartsua izan zen, bai estetikoki, bai emozionalki, eta 1.000 pertsona baino gehiago bertaratu ziren.

"Sahara Occidental 1975. El final del colonialismo franquista " liburuaren aukezpena,

Isaias Barreñada egilearekin, Mojtar Leboihi Fronte Polisarioak Euskadin duen ordezkariarekin eta Jeanette López elkarteko ordezkariarekin. Ignacio Aldecoa kultur etxean egin zen. Barreñadak oso ikuspegi interesgarria eta ezohikoa eman zion espainiar kolonialismoari Mendebaldeko Saharan, mundu akademikoak eta elkartasun-mugimenduak sarritan oso modu edulkoratuan tratatu izan dutena. 40 pertsona inguru bertaratu ziren.


Səhərəri
kəntəri

Ipuin kontalariak ikastetxeetan

Martxoaren 2tik 6ra Kristina Berasain eta Eñaut Aiartzaguenaren "Muha eta amona Lala" liburuaren aurkezpenarekin jarraitu dugu eta Gasteizko hamar ikastetxetako Haur Hezkuntzako 4 eta 5 urteko ikasleen aurrean izan gara. Liburuaren hasierako aurkezpenean bezala, Elisa Ruedak egin du istorioaren narrazioa, eta, bide batez, saharar bizitza nomadako zenbait bitxikeria azaldu ditu. Esperientzia interesgarria izan da, eta esperientzian parte hartu duten haurren etxeetara iristea espero dugu. Ikastetxeetan liburuaren bi ale utzi ditugu.





BIDAIAK TINDOUFEKO SAHARAR ERREFUXIATUEN KANPAMENTUETARA

Ingurumen-Osasuna:

2021aren amaieran, Elkarteak Ingurumen Osasuneko Unitate bat sortzen lagundu zion Ur eta Ingurumen Ministerioari. Unitate horrek, pixkanaka, hainbat lan hartu zituen bere gain, hala nola hildako animaliak eta hondakinak biltzea komunitateen inguruko eremuetan, ingurumen-fumigazioak egitea eta putzuak desinfektatzea, besteak beste. Gaur egun, 39 laguneko taldea du Unitateak; horietatik 31 emakumeak dira, eta 8 gizonak, 29 daeretan lan egiten dutenak.

Otsailaren 5etik 16ra hausnarketa prozesu parte-hartzaile bat antolatu genuen, 2019tik Elkartearekin elkarlanean ari den Esther Canariasek dinamizatua. Prozesu hori entzute aktiboko, azterketa kolektiboko eta elkarrekin eraikitzeko espazio gisa diseinatu zen, Unitatearen funtzionamendua modu integralean berrikusteko eta hobetzeko aukerak identifikatzeko.

Azterketa ikuspegi bikoitzetik egin zen, barnetik eta kanpotik, funtsezko hainbat eragileren begirada txertatuz: zuzendaritza-taldea, gidarien eta langileen taldea, eta komunitateetako arduradunak. Ahots-aniztasun horri esker, ikuspegi osoagoa eta egiaztatuagoa lortu ahal izan zen Unitatearen jardunari, lorpenei, dauden zailtasunei eta etorkizuneko erronkei buruz.

Saioetan zehar, elkarrizketa-gune irekiak sortu ziren, esperientziak partekatzeko, jardunbide egokiak identifikatzeko eta eguneroko lanean eragiten duten muga nagusiak bateratzeko. Halaber, lanaren antolaketari, taldeen arteko koordinazioari eta komunitateekiko harremanari buruzko hausnarketa sustatu zen.

Prozesuaren emaitza gisa, parte hartzeko hiru gune horietan sortutako proposamenak jaso eta sistematizatu ziren. Proposamen horiek funtsezko hainbat eremutan biltzen dira: alde batetik, jarduerak behar bezala garatzeko beharrezkoak diren alderdi materialak eta fisikoak; bestetik, taldearen lan-baldintzak, antolaketa, lan-karga eta ongizatea barne; eta, azkenik, gaitasun eta ezagutza teknikoak indartzea. Oro har, ekarpen horiek oinarri sendoa dira Unitatearen eraginkortasuna, jasangarritasuna eta inpaktua hobetzera bideratutako ekintzak definitzeko.



Gazteria

2026ko urtarrilean kanpamenduetara itzuli ginen emakume gazteekin bi proiektu gauzatzeko:

Alde batetik, emakume gazteentzako gimnasioa jarri genuen martxan Smaran. Haren jarraipena ziurtatzeko, Daniela Giraldo fisioterapeutak gorputz-mugikortasuneko tekniketan trebatu zuen bertako entrenatzailea, Mahyuba. Gainera, bideo-baliabide batzuk grabatu zituzten elkarrekin, Mahyubak eskolak modu erabat autonomoan zuzendu ditzan.

Aldi berean, herriko gazte talde feministarekin jardun dugu. Maya Amranek bere taldekako saioetan lagundu zituen wilayetan eta, ondoren, bere metodologia indartzeko hausnarketa-jardunaldiak partekatu zituzten. Topaketa horri esker, zalantzak argitu eta hobekuntzak proposatu ahal izan ziren.

UNMS

2026ko urtarrilean, kanpamentuetara joan ginen Mar Garroterekin batera, komunikazioari, lidergoari eta talde-lanari buruzko prestakuntza emateko, Informazio eta Ahalduntze Saileko taldeei eta Saharako Emakumeen Batasun Nazionaleko Komunikazio Departamentuari zuzenduta. Prestakuntza hiru egunez egin zen UNMSren egoitza nagusian, Bojadorren.

Egoera meteorologiko zailak eta gerora sortutako zailtasunak gorabehera (taxilarien greba, adibidez), parte-hartzaileak kanpamendu guztietatik joan ziren, eta konpromiso handia erakutsi zuten. Prestakuntzaren garapena oso positiboa izan zen, eta parte-hartze aktiboa eta dinamikoa izan zuen ezaugarri nagusia.

Prestakuntza horren ondoren, parte-hartzaileek bi aldiz errepikatu dute edukia wilaya ezberdinetako Emakumeen Etxeetan, eta, horrela, ikaskuntza biderkatzea eta erakundearen barne-indartzea bultzatu dute.

Gainera, bidaia horretan bertan, proiektuak kudeatzeko eta horien jarraipena egiteko laguntza teknikoko jardunaldi batzuk egin ziren, erakundeko Batzorde Exekutiboko zenbait pertsonari zuzenduak.













Kale Heziketa Aaiunen

Martxoaren amaieran, Ramadana amaitu ondoren, kanpamentuetara joan ginen ondoko lagunek osatutako delegazioarekin batera: Helder Luiz, Kaleko Heziketako Nazioarteko Institutuko zuzendaria; Alejandra Celorio, Gasteizko programako kale-hezitzailea; Zahara, Aljeriako kale-heziketako programaren arduraduna; eta Joly Apema, Kongoko Errepublika Demokratikoko programaren arduraduna eta Afrikako Eskualdeko Kaleko Heziketako Sarearen koordinatzailea.

Bidaiaren helburua Saharako kaleko heziketa programaren jarraipena egitea zen, egun aktibo dauden sei taldeei lagundu eta haiekin topaketak egin. Era berean, erreferentziazko esperientziak hurbiletik ezagutzeko aukera eskaini nahi izan zen, Aljeriako eta Afrikako eskualdeko kaleko heziketa-programekin eta Gasteizko programarekin esperientzien trukearen bidez. Gasteizko programak saharar programari laguntzeko prozesuan parte hartzen du hasiera-hasieratik.

Egonaldian zehar, jardunaldi publiko bat ere egin zen, saharar programa pilotua aurkezteko, aurrerapenak partekatzeko eta baliozkotzen eta gizartean onartzen laguntzeko.

Azkenik, Saharako kaleko heziketa programak Afrikako Eskualdeko Kaleko Hezkuntza Sarean sartzeko borondatea adierazi du, eta programa horretan sartzeko prozesua hasi du.

2026ko karabana

Aurten ere, gure elkarteak Saharar Herriari Laguntzeko Karabanan parte hartu du, oraingo honetan Tindoufeko kanpalekuetan garatzen ari diren hainbat proiektutarako materialez betetako trailer kamioi bat bidalita.

Kamioia martxoaren 22an abiatu zen Gasteiztik, Elkarteko bi boluntariok gidatuta, eta une honetan Alacanteko Portuan dago, Estatu osotik bidalitako gainerako ibilgailuekin batera, aduanako izapideen zain. Karabana apirilaren hasieran iritsiko omen da kanpalekuetara.

Garraio, ur, ingurumen-osasun, gazteria eta zerbitzu elektrikoei laguntzeko proiektuetarako materialak bidali dira. Osasun-zerbitzuetarako, haur-liburutegietarako eta ikastetxeetarako zuzkidurak ere bidali dira.








Portugal
Espana





Bidaia Genevara, Giza Eskubideen Kontseilura

Martxoaren hasieran, Yaguta El Mokhtarrek eta Andrea Ruizek NBEko Giza Eskubideen Kontseiluaren 61. saioan parte hartu zuten Genevan, side event batean, "Gazteak okupazio luzearen menpe" izenburupean. Gune horretan, besteak beste, saharar gazteek saharar errefuxiatuen kanpalekuetan duten egoerari buruzko diagnostikoaren datuak aurkeztu ziren. Espazio horrek nazioarteko estatu eta erakundeen parte hartze zabala izan zuen. Gainera, aldebiko bilerak izan ziren NBEren erakundeekin, GKEekin eta misio diplomatikoekin.





Antonio de Sucre, 1 - 01003
Vitoria-Gasteiz
www.saharaelkartea.org
administrazioa@saharaelkartea.org